



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2018.07.27

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailaren hogeita zazpian, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
- Olatz Peon Ormazabal**
- Zinegotziak:**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Belloso**  
**Jokin Azkue Arrastoa**
- Idazkaria:**
- Begoña Garmendia Vazquez**
- Kontuhartzailea:**
- Ainhoa Molinos Zubiaurre**
1. Aurreko akta onartzea.
  2. Tolosako Samaniego Ikastetxean burutu beharreko konponketa eta erreformen kontratazio jardunbideari hasiera ematea.
  3. Tolosako argiteria publikoan energia aurrezteko ekipo eta led teknologiko luminarien hornidurarako kontratazio jardunbideari hasiera ematea.
  4. Bitarteko funtzionariaren programa aldaketa proposamena.
  5. Tolosako Arraun Kluba. Lankidetzaren hitzarmena.
  6. Emari-coworking Oriaburu gunean parte hartzeko aurkeztu diren eskaeren balorazioa eta ebazpena.
  7. 41/2018 faktura-zerrenda.

### **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko uztailaren 23an egindako batzarren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.



## **2. TOLOSAKO SAMANIEGO IKASTETXEAN BURUTU BEHARREKO KONPONKETA ETA ERREFORMEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.**

### **1.- Identifikazio datuak**

**Kontratuaren xedea:** Tolosako Samaniego herri-ikastetxean erreforma-lanak jasotzen dituen proiektuan aurreikusitako obren kontratazioa

**Unitate sustatzailea:** Tolosako udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Saila

**Espedientea:** B.5.2.1/2018/0089

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

### **2.- Aurrekariak**

I.- Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko uztailaren 23an egindako bilkuran, besteak beste, Tolosako Samaniego herri ikastetxean erreforma-lanak jasotzen dituen proiektua, Gorette Nieva A.k eta Angel Urbano J.k egindakoa, aho batez onartu zuen. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jaso zen espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236 artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, Samaniego herri eskola, udalaren jabetzako ondasuna da, eskolako zerbitzu publikoari atxikituta, Udal Ondasunen Erroldan agertzen den informazioaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

- Orain dagoen estalkiaren gainean txapazko estalki berria jartzea, teilatuko azalera osoan.
- Bi estalkien tartean, geruza iragazgaitza jartzea.
- Eraikinaren estalkiak eta fatxadek bat egiten duten eremuetan, isolamendu termikoko lanak exekutatzeko.

SPK Legearen 232.1.a) eta 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektaturiko lanak, **erreformako lanak** direla ondorioztatu da, ondorengo hauek kontuan hartuta:

- Egingo diren lanak, erabileratik sorturiko mantenu soila gainditzen dute, eta dauden beharrei (klimatologia, isolamendua) egokitzen zaizkie, eraikinaren kalitatea hobetuz.
- Lan horiek ezin dira kalifikatu konponketa gisa, SPK Legeak bere 232.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: *Se consideran como obras de reparación las necesarias para enmendar un menoscabo producido en un bien inmueble por causas fortuitas o accidentales.*



- Erreformako lanak ondorengo era honetan definitu dira SPK Legearen 232.3 artikuluan: *El concepto general de reforma abarca el conjunto de obras de ampliación, mejora, modernización, adaptación, adecuación o refuerzo de un bien inmueble ya existente.*

Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPK Legearen 231 eta 232 artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, Samaniego herri eskolan burutu nahi diren lanak, erreformakoak dira, kontserbazioa edo mantenu soila gaituz.

Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

### **3.- Kontratazio-espedientea, kontratuaren izaera eta kaudimena**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipaturiko Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Espedienteari hasiera emateko Alkatetzaren Probidentzia.
- Tolosako udal ondasunen erroldako fitxak
- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko Arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Proiektua: Memoria, Preskripzio Teknikoen Orria eta Aurrekontua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria

Halaber, espedientea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat, obra kontratua hain zuzen ere, aipatu Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPK Legearen 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanaren bat exekutatzeko izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.22 atalean sailkatutakoak agertzen dira: *construcción de cubiertas y estructuras de cerramiento*

Bestalde, obra kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:



1.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **93.687,33 €**-koa dela. Kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean.

Hori horrela, nahiz eta obra kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikulua arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 20.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.548.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 3.000.000 €-ko kopurua ez duelako gainditzen.

2.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I titularen IV Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11, atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86, 87, eta 88. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da kontratuaren balio zenbatetsiak ez duela gainditzen 500.000 €-ko kopurua. Beraz:

- Enpresa berriek parte har dezakete lizitazioan (88.2 artikulua).
- Lizitatuzaileen gaitasunari dagokionez, lizitatuzaileen sailkapena ez da nahitaezkoa izango (77.1.a) artikulua). Hala ere, sailkapenak gaitasuna eta kaudimena egiaztatuko ditu botere esleipendunaren aurrean (artikulu bera, bigarren paragrafoa)

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu behar da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.*

#### 4.- **Espediente mota**



SPK Legeak bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“ hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

#### **5.- Kontratuaren ezaugarriak**

Obra kontratua gauzatzeko gehienez **HILABETEKO EPEA** ezarri da, zuinetaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 113.361,67 €, horietatik 93.687,33 € printzipala eta 19.674,34 € B.E.Z.-ari dagozkionak.**

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, 0700.62202.9231 aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

#### **6.- Esleipena egiteko jardunbidea eta modua**

Proposatutako kontratazioari SPK Legean jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditente honetan **jardunbide ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia



TOLOSAKO  
UDALA

printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPK Legearen 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPK Legearen 145 eta 159 artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpiderik ez dago, eta balorazio osoa formulatan oinarritu da Beraz, SPK Legearen 159.1.b) artikuluan (balio-judizioetan oinarritutako irizpideak %25a ez gainditzea) bete da.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPK Legearen 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabeteetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 €-ko kopurua gainditzen. Kasu honetan, aipatu Legearen 243.3 atalean xedaturiko kasu bereziaren aurrean gaudela iradoki du Idazkari honek.

#### **7.- Administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria**

Kontratazio-espeditentarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoaren Orria aztertu dira, SPK Legearen 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

#### **8.- Kontratazio-organoa**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena **Alkate-Udalburuarena** da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arazoengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta espeditentean agertzen txosten teknikoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO  
UDALA

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Tolosako Samaniego herri-ikastetxean erreforma-lanak jasotzen dituen proiektuan, -Goretti Nieva A.k eta Angel Urbano J.k egindakoa-, aurreikusitako obrak kontratatzeko espedientea onartzea.

**BIGARRENA.**- Licitaziorako oinarritzko aurrekontua, 113.361,67 €-koa, %21ko BEZa barne, onartzea, ondokoaren arabera:

- **Lizitazio prezio orokorra: 113.361,67 €, horietatik 93.687,33 € printzipala eta 19.674,34 € B.E.Z-ari dagozkionak**

**HIRUGARRENA.**- Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **hilabete batekoa** izango da, obraren zuinketa egiaztapeneko akta izenpetu sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

**LAUGARRENA.**- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

**BOSTGARRENA.**- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide ireki sinplifikatua) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko kontratugilearen profilean, lizitatuzaileek beren proposamenak 22 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**SEIGARRENA.**- Erabaki horiek Kontuhartzailletza Departamentuari jakinaraztea.

### **3. TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO EKIPO ETA LED TEKNOLOGIAKO LUMINARIEN HORNIDURARAKO KONTRATAZIO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.**

#### **1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**KONTRATUAREN XEDEA:** Tolosako argiteria publikoan energia aurrezteko ekipo eta led teknologiko luminarien hornidura



TOLOSAKO  
UDALA

**UNITATE SUSTATZAILEA:** Tolosako udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Saila

**ESPEDIENTEA:** B.5.2.1/2018/0091

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espeditenteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

## **2.- AURREKARIAK**

I.- Udal Ingeniariak, **Tolosako argiteria publikoan energia aurrezteko ekipo eta led teknologiako luminarien hornidura** xede duen kontratazioa abian jartzeko proposamena aurkeztu du, kontratazio-jardunbideari hasiera emateko eskaera luzatuz, Departamentuak aurkezturiko Preskripzio Teknikoen Orriarekin batera.

Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko kontratuari dagokion espeditentea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

## **3.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatu Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Espeditenteari hasiera emateko Alkatzaren Probidentzia.
- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko Ingeniariak egindako kontratazio-proposamena.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria
- Preskripzio Teknikoen Orria.

Halaber, espeditentea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat, hornidura kontratua hain zuzen ere, aipatu Legearen 16. artikuluan xedaturikoaren arabera.





Bestalde, hornidura kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

1.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **66.100 €**-koa dela. Izan ere, aipaturiko Legearen 99.6 artikuluan araututakoaren arabera, loteetan banatzen diren kontratuen balio zenbatetsia, lote guztien emaitzari dagokiona izango da, eta hori kontuan hartuko da kontratazio espedientearen publizitatea eta jardunbidea ebazteko.

Hori horrela, nahiz eta hornidura kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikuluen arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 21.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000 €-ko kopurua ez duelako gainditzen.

2.- Bestalde, Baldintza Administratiboen Pleguaren IV Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11, atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86, 87, eta 89. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.*

#### **4.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKL-k bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espedienteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: "geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak



*diren kontratuen espedienteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta". Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.*

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: "*hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...*"

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espediente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

## **5.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK**

Hornidura kontratua gauzatzeko gehienez **HILABETE T'ERDIKO EPEA** ezarri da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua %21ko BEZa barne, ondoko hau izango da:

- 1. lotea (Alde Zaharreko led luminariak): 53.300 € printzipala, eta 11.193 €, B.E.Z.ari dagozkionak. Guztira: 64.493 €.
- 2. lotea (bestelako luminariak): 12.800 € printzipala, eta 2.688 €, B.E.Z.ari dagozkionak. Guztira: 15.488 €.
- **Lizitazio prezio orokorra (eskaintza integratzaileentzako): 79.981 €, horietatik 66.100 € printzipala eta 13.881 € B.E.Z.ari dagozkionak**

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, **0700.623.05.165.00** aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

## **6.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari SPK Legean jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: "*La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...*"



Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPK Legearen 156, 157 eta 158 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 ataletan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPK Legearen 145 eta 157 artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere.

## **7.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA**

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPK Legearen 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

## **8.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena **Alkate-Udalburuarena** da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta espedientean agertzen txosten teknikoarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO  
UDALA

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Tolosako argiteria publikoan energia aurrezteko ekipo eta led teknologiako luminarien hornidura xede duen kontratazio espedientea onartzea.

**BIGARRENA**.- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua %21ko BEZa barne, onartzea, ondokoaren arabera:

- 1. lotea (Alde Zaharreko led luminariak): 53.300 € printzipala, eta 11.193 €, B.E.Z.ari dagozkionak. Guztira: 64.493 €.
- 2. lotea (bestelako luminariak): 12.800 € printzipala, eta 2.688 €, B.E.Z.ari dagozkionak. Guztira: 15.488 €.
- Lizitazio prezio orokorra (eskaintza integratzaileentzako): 79.981 €, horietatik 66.100 € printzipala eta 13.881 € B.E.Z.ari dagozkionak

**HIRUGARRENA**.- Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea hilabete t'erdi izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

**LAUGARRENA**.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

**BOSTGARRENA**.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko kontratugilearen profilean, lizitatzailleek beren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**SEIGARRENA**.- Erabaki horiek Kontuhartzailletza Departamentuari jakinaraztea.

### **4. BITARTEKO FUNTZIONARIOAREN PROGRAMA ALDAKETA PROPOSAMENA.**

Tokiko Gobernu batzarrak 2017ko azaroaren 20an egindako bileran, Francisco Javier Araniguria Rodrigo bitarteko funtzionario izendatzea onartu zuen 2017ko abenduaren 1etik aurrera programako funtzionario gisa urtebeterako izapideen eskuliburuaren aplikazioa ezarri eta espedienteen kudeaketa elektronikoa bideratzeko helburuarekin.

Behin, ia zazpi hilabete igaro ondoren, Izapideen eskuliburua egin da eta espedienteen kudeaketa jadanik txertatu da udalean; orain, hurrengo fase batean, honen sozializazioa



TOLOSAKO  
UDALA

gingo da Roberto Otxandioren bidez, zeina Udateren antolaketa berriarekin hasiko den lanean. Horregatik, kontuan hartuta aipatu programa horren helburu nagusiak bete direla, egun udalak dituen beste behar batzuetara egokitu beharko litzateke aipatu programa hori, besteen artean hauek:

- Indarrean sartu berri den 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legearen ezarpena.
- Udaleko kontratazio espedienteen izapidetzea bateratzea, dena sail batean zentralizatuaz.
- Espediente bakoitzaren pausoak definitu eta kudeaketa programan sartzea.
- Eredugarriak izan daitezkeen espedienteak lantzea.

Programaren epea bere horretan mantentzea proposatzen da, hau da, 2018ko azaroaren 30a arte.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Pertsonal teknikoak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENENA.-** 2018ko uztailaren 27tik aurrera Francisco Javier Araniguria Rodrigo jaunari bitarteko funtzionario izendapena aldatzea eta programaren aldaketa egitea xedapen zatian agertzen den moduan.

**BIGARRENA.-** Akordio hau interesatuari jakinaraztea.

## 5. TOLOSAKO ARRAUN KLUBA. LANKIDETZA HITZARMENA.

### **AURREKARIAK:**

Kirol Teknikariak, 2018ko uztailaren 18an egindako txostenean, interesekotzat jotzen du aipatutako elkarteari Emakumezkoen trainerua proiekturako diru-laguntza izenduna ematea. Kirol interesetik at, interes soziala ere bateratzen dituela azpimarratzen da. Proiektuak balore erantsia du zeharkako udal politikarekin bat datorrelako, hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboaren aldeko apustua egiten duelako.

Arrauna, euskal kirolaren ikur izan da eta da, baina hainbat kiroletan bezalaxe gizonezkoek kolonizatutako esparrua. Proiektu honek aukera ona eskaintzen du



pertsonen imajinarioan dagoen gizonezkoen irudia ordezkatzeko eta zentzu honetan proiektu eraldatzaile eta hezitzailea delakoan gaude eta datozen belaunaldietarako eredugarria. Tolosaldeko emakumeen ahalduntze eta bistaratze helburuak bereak egin dituelako eta hauspotzen lagunduko duelako.

## **AZTERKETA JURIDIKOA**

**1.-Oinarri juridikoa eta udalaren eskumena** Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- Udal eskumenen sailkapena egin zuen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- Udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- Udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritu baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua, udalek, besteak beste, “Kirol sustapena eta kirol ekipamenduak” arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.20.artikulua arabera udalerriek, besteak beste, ondorengo esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: “kirola eta ekipamenduari buruzko politikak sustatzea”.

## **2. Udalaren sustapen-neurriak eta diru laguntzak. Prozedura:**

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko hiru araudi nagusi hauek arautzen dituzte:



TOLOSAKO  
UDALA

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua
- Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorra.

Arautegi horien arabera, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa da. Halere, **zuzenean eman daitezke** honako diru-laguntza hauek:

a) Toki-entitateen aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, diru-laguntza horien hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan.

Hauexek dira toki-entitateen aurrekontuetako diru-laguntza izendunak: helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituztenak aurrekontuaren gastuen orrian.

b) Lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaizkion diru laguntzak edo zenbatekoak; diru-laguntza hauek emateko, arauaren beraren arabera aplikatu beharreko prozedura jarraitu beharko da. Bestalde, diru-laguntza hauek erregulatuko dituzte lege-mailako arau horrek berak eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharrekoak direnek.

c) Salbuespenez, honako diru-laguntza hauek eman daitezke zuzenean: interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak tarteko direla justifikatzen dutenak eta halako laguntzak emateko deialdi publiko bat egitea ezinezkoa dela ere justifikatzen dutenak justifikazio arrazoituaren eta agiri bidezko memoriaren bidez.

Diru-laguntzak eman aurretik, onartuta egon behar dute haien oinarri erregulatzailerak ezartzen dituzten arauak.

Legeriaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunen kasuan, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera diru-laguntzak emateko oinarri arautzailatzat joko da; era berean, hitzarmenak diru-laguntzen Lege Orokorreko 28.3 artikuluko elementuak jaso beharko ditu.

Diru-laguntza zuzenean emateko prozeduraren oinarrizko ezaugarria da ez dela exijitzekoa publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak betetzea, eta lehen aipatu bezala, Legean aurreikusitako kasu horietan soilik aplikatu daitezke. Hori bai, kontuan izan behar da ematen diren diru-laguntza guztiak haien datu-basera bidali behar direla (BDNS-Banco de Datos Nacional de Subvenciones), egintza erregistragarriak gertatu ahala bidali ere, eta helarazi behar direla egintza gertatu eta hurrengo hilabete naturala bukatu baino lehen.

Era berean, kontuan izan behar da ondorengo betebeharrak hau ere: Subentzio edo laguntza publiko batek deialdia egitea ez badu derrigorrezko, hura ematen duen



organoak BDNSn erregistratu beharko ditu datu egituratuak, honako epe hauetan: xedapen arautzailea argitaratu eta berehala, baldin eta subentzioak edo laguntzak hartzaile zehazturik ez badu; eta ematen den momentuan, gainerako kasuetan. SNPS-DPSNK (Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones - Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionala) berehala egingo du datu horien publizitatea, eta ez da aplikagarria izango 72 orduko epea, bosgarren xedapenean ezarrita dagoena; era berean, ez da beharrezkoa estraktua aldizkari ofizialean argitaratzea.

Xehetasunean, Legedi hau aplikatu behar da:

- Diru-laguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, diru-laguntza izendunak udal ordenantzako 13.3,a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 21., 22., 25. eta 72. artikulua.
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araudia onartzen duena; II. Titulua.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28., 30. eta ondorengoak.
- 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; 55., 65., 66. eta 67. artikulua. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten.
- Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.
- Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arena. Konkretuki, 47-53 artikuluetan zehaztutakoa. Batez ere, kontutan hartu behar da 48.7 artikulua dioena: "Cuando el convenio instrumento una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo, que en su caso, resulte aplicable."

Prozedura, normalean, ofizioz hasiko da. Horretaz gain, prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, kasu hauetan: aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendun bat eman behar denean, eta lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaion zuzeneko diru-laguntza bat eman behar denean, baldin eta entitate emailearen eta onuradunen artean hitzarmena sinatu behar bada.

Zuzeneko diru-laguntza emateko prozedura orokorra honako hau da:





TOLOSAKO  
UDALA

A. Departamentuko arduradunak egiaztatu behar du diru-laguntza eskaerak ondoko baldintzak betetzen dituela, zera:

- Eskatzailea den Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela, eta baita bere ordezkaria ere.
- Elkartearen Estatutuetan arautzen den xedea bat datorrela diruz lagunduko diren jarduerekin.
- Elkartea egunean dagoela bere betebeharretan, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.
- Eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du, diru-laguntza jasotzeko inolako debekurik edo bateraezintasunik ez duela, eta dagokion ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen dituela adieraziz. Halaber, eskatzaileak zehaztu behar ditu bere eskaeraren jarduerak eta aurrekontua. Arduradunak txostena egingo du, goian azaldutakoa egiaztatuz. Bestalde, txosten hori egingo du jakiteko ea aurrekontuan diru-izendapenik badagoen edo ez diru-laguntza izendun hori emateko. Kontutan hartu behar da, Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrak bere 10.8.artikuluan esaten duena: "Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Tolosako udalak edo beren erakunde publikoek emandako diru-laguntzak justifikatzeke daudenak, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hatu gabe DLOren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte". Puntu honetan, beraz, kontuhartzaileak egingo duen txostenari heldu behar dio. Era berean, diru-laguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio Kontuhartzaitzaren txostena behar dela.

B. Gobernu Batzarrak erabakia hartuko du.

C. Hitzarmena formalizatuko da; bertan jasoko dira emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak diru-laguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.

D. Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, legeriak agindu bezala eman ere.

E. Iragarkia Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igorriko da: baita gardentasun atarira ere.

F. Diru-laguntza jasotzeko, dokumentazioa aurkeztu behar da haren aplikazioa justifikatzeko. Oinarrietan jasota egongo da zer dokumentazio eskatu.

Prozedurari dagokionez, araututa daude berezitasun batzuk, diru-laguntza motaren arabera. Hori dela eta, hauexek izan behar dira kontuan: aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izenduna eman behar bada, ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak puntu hauek jaso behar ditu:

- Zehaztu behar da diru-laguntzaren eta haren onuradunen helburua, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera.



TOLOSAKO  
UDALA

- Zer aurrekontu-kredituri egotziko zaion gastua eta diru-laguntzaren zenbatekoa, banan-banan, baldin eta onuradun bat baino gehiago badira.
- Diru-laguntza horren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekiko, Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio, ente publiko edo pribatuena izan, nazioarteko erakundeena izan.
- Epeak eta moduak diru-laguntza ordaintzeko; ordainketa aurreratzeko edo konturako ordainketak egiteko aukera; onuradunek jarri beharko bermeen arauak.
- Epea eta moduak onuradunak justifika dezan diru-laguntzak bete duela zeukan helburua, eta nola erabili diren jasotako diruak.

Gainera, kontuan izango dira Udal Ordenantzako 18.3 artikuluan jasotako puntuak.

**3.-Organo eskuduna:**Gobernu Batzordea. Horrela dio 2015/1.278 Alkate Dekretuak "Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea ondorengo eskuduntzak: "Diru-laguntzak eta laguntzak, konkurrentzia prozeduraren bidez ematen ez direnak, salbu Gizarte Ongizateko arautuak"

**Beraz, bukatzeko:**

Tolosaldeko Arraun Klubak (TAK) , aurkeztutako Emakumezkoen Trainerua Proiektuak, diru-laguntza izenduna jasotzeko baldintzak betetzen dituzenez,

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosaldeako Arraun elkarteari – 2018ko aurrekontuetako 1000.481 0.341000 partidaren kargu, 10.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea eta diru-laguntza honen %75a aurreratzea, hau da, 7.500 €

**BIGARRENA.-** Onartzea Tolosako udalaren eta aipatutako elkartearen arteko hitzarmena ondoko aldaketarekin:

- **Hitzarmenean, kirol entitatearen izen ofiziala agertu behar da: "Club Deportivo Tolosaldea Arraun Oria 2005."**

Hitzarmenaren klausula hauek dira:



**Lehena: Xedea.**

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Arraun klubaren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea, Tolosaldeko emakumezkoen trainerua proiektua gauzatu dadin.

**Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- a) 2018ko emakumezkoen traineru ligan parte-hartzea.
- b) Aurre-denboraldia: kirol denboraldiaren prestaketa.

Zentzu honetan diruz lagunduko diren kontzeptuak hauek dira:

- Kirol materiala (trainerua, arraunak, ekipazioa)
- Taldearen joan-etorriak (entrenamenduak, lehiaketa)
- Zerbitzu teknikoak (trainerua, arraunen mantenua...)
- Medikuzko zerbitzuak
- Federazio gastuak
- Aseguruak
- Publizitatea

\*Baldin eta materiala (trainerua) erosten bada eta ondasun higiezinak hobetzen badira, onuradunak diru-laguntza jaso duen helburu horretara bideratu beharko ditu ondasunak, gutxienez 4 urtez.

**Hirugarrena: Diruz lagundutako proiektuaren finantziazioa.**

Tolosako Udalak diru-laguntzen bidez hartuko du parte hitzartutako proiektuaren finantzaketan. Diru-laguntza hau lotuko da kirol denboraldiko jarduerekin, kirol denboraldi epea irailaren 1etik hurrengo irailaren 30-a bitartekoa kontsideratzen delarik. 2018 ligarako diru-laguntza 10.000 eurokoa izango da.

Xede honetarako, Tolosako Udalak dagokion urteko aurrekontuetan beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak gordeko ditu, 1000..... Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako entitateak beste erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Tolosaldea Arraun Klubak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantzazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

- a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.



TOLOSAKO  
UDALA

*Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.*

*b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.*

*Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.*

*Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.*

#### **Laugarrena.- Asegurua**

*Udalak ez du erantzukizunik izango traineruan gerta daitezkeen kalte, galera edota gertaerengatik. Horretarako, klubak dagokion aseguru poliza sinatu behako du edozein gertaeratik babestuta gelditzeko.*

#### **Bosgarrena: Indarraldia.**

*Hitzarmen honek 2017ko irailaren 1etik 2018-ko irailaren 30era arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoaren arabera.*

#### **Seigarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

*Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea. Onartuko dira gastu bezala hitzarmena indarren dagoen bitartean sortzen direnak.*

*Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.*



*Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.*

*Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.*

### **Zazpigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.**

*Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.*

*Diru-laguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, baldin eta diru-laguntzen zenbatekoa 15.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, eta kontu erraztuak jaso behar du, oro har, honako dokumentazio hau:*

*a) Jarduera-memoria (A1 inprimakia) diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren.*

*b) Gastuen eta inbertsioen zerrenda (KZ kontu zurigarriaren inprimakia), ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena (KZ inprimakia). Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.*

*c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.*

*d) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.*

*Organo emaileak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko-erabakian edo hitzarmenean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:*

*a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gaitzen duten egiaztagiria guztiak begiratuko dira.*

*b) Gainerako egiaztagiritatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:*

*- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: 100eko 100.*

*- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.*

*- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.*



TOLOSAKO  
UDALA

- Egiaztagiriak berrogeita hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20.

**Zortzigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa aurkezteko epea.**

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea beranduena ere, indarrean dagoen aurrekontuaren urriaren 31-a izango da.

**Bederatzigarrena: Ordaintzeko prozedura.**

Diru-laguntzaren ordainketa beti ere hitzarmen hau sinatu ostean egingo da, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25-a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, eta udal zerbitzuaren onespenearekin, ebazpena behin betikoa denean.

Bete beharreko baldintza izango da egunean egotea diru-laguntzak jasotzeko betebeharretan.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinarazi behar zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

**Hamargarrena: Diruz lagundutako proiektuaren publizitatea.**

TAK-ek diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

TAK-ek konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

**Hamaikagarrena: Euskararen erabilpena.**

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

**Hamabigarrena: Genero berdintasuna.**



TOLOSAKO  
UDALA

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango ondorengo hauek:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

**Hamahirugarrena: Jarraipen Batzordea.**

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzaren bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

**Hamalagarrena: Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

**Hamabosgarrena: Lan- eta zerga-legeria.**

Diruz lagundutako entitateak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

**Hamaseigarrena: Izaera administratiboa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

**Hamazazpigarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.**

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 10.11. artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOaren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

**Hemezortzigarrena: Gainerako legeria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;



TOLOSAKO  
UDALA

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailearen 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

**Hemeretzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.**

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitezkeen guztian, beteko dutela.

**Hogeigarrena: Baimentzea.**

TAK-ek espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein administrazio edo erakunde publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

**Hogeitabatgarrena: Gardentasun ataria.**

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

**HIRUGARRENA.**- Iragarkia Diru Laguntzen Publizitate Sistema nazionalera igortzea.

**LAUGARRENA.**-Diru-laguntza hau Gardentasun atarian argitaratzea.

**BOSGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kirol Departamentuari.

**6. EMARI-COWORKING ORIABURU GUNEAN PARTE HARTZEKO AURKEZTU DIREN ESKAEREN BALORAZIOA ETA EBAZPENA.**

Gaia mahai gainean geratu da.

**7 .41/2018 FAKTURA-ZERRENDA.**

Kontuhartzaitzak **41/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **100.609,99 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**





TOLOSAKO  
UDALA

**LEHENA**.-41 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00tan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**